

# Abarrak

Unai Brea

## Baloreaz eta baloreez

*Go!azen*. Zuzendaria: Jabi Elortegi. Aktoreak: Barbara Rivas, Iñigo Azpitarte, Ramon Agirre.

A ZER EZTABAIDA sortu den ETB1-eko *Go!azen* telesailaz. Nik neuk ildo bi sumatzen ditut iritzietan: bata, baimena emango didazue euskararen makiaveloena deitzeko, *Go!azen* gustuko eduki ez arren ontzat ematen duena, umeak euskarazko produktu batera iltzatu dituelako, telebistan aspaldi ez bezala; bestea, baimena emango didazue maximalistena deitzeko, euskara sustatzearen helburuak *Go!azen* bezalako bitartekoak justifikatzen ez dituela pentsatzen duena.

Kostatzen zait zein aldetara lerratu behar dudan erabakitzea. Alaba biren aita naiz, bete-betea telesailaren *targetean* kokatuak biak. Telebistako agintea erabiltzen ikasi zutenetik *Go!azen* agertu arte, gaztelaniara bikoiztutako estatubatuar produktuak kontsumitu dituzte nagusiki, Pirritx eta Porrotxen urteroko DVDa kenduta. Alde horretatik, telesaila haize berria izan da gurean.



Eztabaidagai nagusia hau da: zer irabazten dugu, *Hannah Montana* hein batean ordezkatzeko lortu duen produktuak *Hannah Montanaren* antzeko baloreak gortzen baditu? Eta kalitate eskasagoaz, gainera. Tira, azter dezagun hobeto zein balorez ari garen, eta zein kalitate irizpidez. Hasteko, *Go!azenen* egiten dituzten euskal kantu ezagunen moldaketak delinkuentziaren eremuan kokatuak nituzke neronek, baina nire alabei izugarri gustatzen zaizkie; gustu kontua, hortaz. Gainerakoan, ez

nuke esango *Go!azen* (hain) gaizki eginda dagoenik, baina ez naiz berebiziko aditua ere. Eta baloreak? Ba bai, telesailak bere

egin du AEBetan hain berezkoa duten ikasle ospedun/ikasle arrakastagabeko dikotomia hori, hala nola euskal guraso modernook gustuko ez ditugun beste bizi-filosofia eta pentsamolde batzuk. Nire lehen galdera da ea audientzia ona ziurtatzerik dagoen formula horretatik kanpo. Nire beste galdera da ea ba ote dagoen ondo definituta XXI. mendeko euskal produktu jator batek eduki behar lukeen balore multzoa. Ikusleak uxatuko ez dituen, ahal dela.

Zer iritzi dut, beraz? Ba ez dakit, denbora gehiago beharko dut pentsatzeko. Momentuz, do!azela.

EITB

KEMEN LERTXUNDI  
BIDE ERTZEAN  
ESNE ZOPAK  
UEK  
PETTI & BARRENCE WHITFIELD  
FLAKUTT  
THE DIRTY PINK LADIES  
NORMAN  
MIKEL ANDONEGI  
HOTSAK DANTZAN 2  
JIMMY ARRABIT TRIO  
MIKEL GAZTELURRUTIA  
WWW.HOTSAK.COM